

Misio-kongregazioak

artean beren ardurapean harturik duten misio-lurraldea. Euskal diozesiak izan dira Eliza Katolikoan aurrenak, garai modernoetan, horrelako misioak hartu dituztenak: 1948an Los Ríos-ekoa (Ekuatoren), eta gero beste lurralde batzuk Afrikan ere.

Eliza Katolikoaren misio-ekintza gehienbat *erlijioso-institutuen eskuetan egon da eta dago gehienbat.

Ik. Misioak; Misio-mugimendua.

Misio-kongregazioak

Kongregazio misiolariak ere esaten zaie. *Erlijioso-institutuak dira, bereziki misio-ekintzarako sortuak: Afrikako misiolariak edo "Aita Zuriak", Konboniarrak edo Jesusen Bihotzaren Semeak, Jainko-Hitzaren Misiolariak, Mariaren Misiolari Frantzisko-tarrak, etab.

Ik. Misioak; Misio-mugimendua.

Misio-laneko moldaera

Sin.: Misiozko aurrintzea

Misio-ekintzaren abiaburuetako bat adierazten du kristau-misiologiak esakune horren bidez: horren arabera, Ebanjelioa zabaltzen eta Eliza eratzen deneko Herriaren beraren erlijiozko baloreei eta kulturari moldatu behar zaie *kristautasuna, beronen fedezkoa eta erakunde funtsezkoa osorik gordez.

Ik. Kulturaztapena; Kulturalakuntza; Misiologia; Misio-teologia; Kultura eta erlijioa.

Misio-mugimendua

XIX. mendearen azkenaldian hasita, bereziki Munduzabaleko lehen Gerratearen ondoren Eliza Katolikoan susperturiko korrantea, Eliza osoa eta kristau guztiak misio-ekintzari edo lanari buruz jaberazteko eta horretan esku hartzera bultzatzeko. Aita santuen misio-entziklikek eragin berezia eduki zuten mugimendu hori bizkortzeko.

Ik. Misioak; Ebanjelizazioa.

Misio-teologia

Elizaren misio-ekintzaren oinarri teologikoak, alde kristologikoak, eklesiologikoak eta antropologikoak eta helburu apostolikoak sistematikoki aztertzen dituen *teologiaren parte da. *Misiologiak, berriz, misio-teologiaz gain, misioen historia, misio-zuzenbidea, misio-pastoralta, etnologiaren misiotarako aplikazioak, etab. biltzen ditu barnean.

Ik. Misioa; Misioak.

Misioak

Kristau-hizkeran hiru esanahi hartu ditu:

1. Kristau ez diren Herrietan kristau-Elizek daramaten lana edo iharduera, kristau-fedea zabaltzeko eta Eliz elkarteak eraikitzeko: *Misio-teologia; *misio-laneko moldaera; misio-mugimendua.

2. Helburu hori iristeko eta ekintza hori bideratzeko Elizak eratu dituen erakundeen multzoa: misio-institutuak, -asoziazioak eta -ekintzak, ebanjelizazio-lekuak, eliza berriak, etab.: *Misio-kongregazioa, Misioetarako Ekintza Pontifikalak.

3. Ebanjelizatu gabe dauden edo Eliza iraukorki eratu gabe dagoeneko Herriak edo lurraldeak: Misiotara joan; misio-lurraldea.

Kontzeptu hau beste erlijioetara ere zabaltzen bada, edozein erlijio, finkaturik dagoen lurraldeetatik edo gizartetik kanpora zabaltzeko ekintza organizatuak adierazten ditu misioak hitzak.

Badira misio-erlijioak, kristautasunaz gain: handien artean, *islamismoa eta *budismoa bereziki. Eta badira misio-erlijioak ez direnak, etniaren bati hertsiki lotuta daudenak eta, beraz, hortik kanpora moldatzerik ez dutenak, etnia bera eta beraren kultura osoa konkistaz nahiz difusioz beste herrialdeetara hedatu ezean. Kultur difusioaz gain, legezko ezarpenaren bidez edo gerra santuaren bidez lortzen da batzutan erlijioaren zabalkundea. Ik. Nazio-erlijioa; Difusionismoa.

Erlijio handi ez-misiokoaren artean, Txinakoak, Japoniakoak eta *hinduismoa daude. Azken hau ere bai, Indiako kasta-sistema sozialari hertsiki lotuta egon delako eta bereziki misio-ekintzak eskatzen duen profetismoa landu ez duelako. Zenbait *maisu eta *gururen eraginez, hinduismoak Mendebaldean zenbait talde bereganatu baldin badu, ez da hori gertatu hinduismoak bere funtsean misio-arnasarik duelako.

Judaismoa, berriz, Israel Herriari hertsiki atxekirik egonez, ez da inoiz benetako misio-erlijioa izan. Hala ere, kristau-aroren aurreko azken mendeetan proselitismo-ekintza aurrera eraman zuen. Baina ez dago misio-ekintza eta *proselitismoa nahasterik. Misioaritzaren edo misio-ekintzaren eta partikularismo etniko-erlijiozkoaren artean dago proselitismoa.

Misio-erlijioak dira gehienetan, fundatzaile historikoren bat dutenak: berorren irakatsiak etniaren barrutia gainditzeko eta

unibertsalismo-asmoz eta ustez predikatzen bait dituzte jarraikariek. *Jesukristok bere ikasleak bidali zituen Herri guztiei bere irakatsiak zabaltzera. Azkar zabaldu zen *kristautasuna Erromako inperioan. Kristau-Eliza guztiek, eta bereziki Katolikoak, hartu dute gogoz misio-ekintza.

Mahomet-ek, berriz, argi eta garbi jar-zen du *Koran-en, "fedegabeak" islameratze-ko eginbidea. Oso bizkorra izan zuen hedape-na lehen mendean. Budismoaren misio-ekintza Asoka erregeak (K.a. III. mendean) bideratu zuen, Tibet-era eta Sri Lanka-ra *misiola-riak bidaliz. Baina *dharma budistak barnean daramatza unibertsalismo-ustea eta misio-as-moa hasieratik. Mende luzetan misio-ekintza gelditurik eduki du, hala ere; XX. mendean berriztatu du, kristautasunari eta mendebal-deari aurre egiteko.

Kristautasunak, judaismoaren *sekta gisa abiatu zenez, bere zalantzak izan dituen hasieran jentil-herrietako misio-ekintzari buruz. Baina S. Pauloren eraginez batez ere, eta Jerusalemgo Kontzilioaren ondoren, era-bat garaitu zituen hasierako zalantzak. San Paulok xedatu zituen, beraz, kristautasuna-ren misio-ekintzaren oinarriak pentsatzez eta ihardunez. Ik. Jerusalemgo apostoluen Kontzilioa.

Euskal Herriko kristautasunak misio-ekintza oso aintzakotzat hartu izan du, XVI. mendetik honantza. Hainbat euskal mi-siolari oso ezagun aurkitzen dugu bai Ameri-kean eta bai Asian, eta Afrikan ere bai. Euskal Herriko *erlijioso-ordenen misio-lan historiko eskergaz gain, munduko *diozesie-tan Euskal Herrikoek hartu zuten, aurrenek Eliza Katoliko osoan, misio-herrialde jakin baten ardura beren gain (1948). Eliza Kato-liko osoaren misio-ekintzaren zaindaria eus-kalduna da, hain zuzen: San Frantzisko Xa-bierkoa.

Ik. Misioa; Proselitismoa; Elizaren katoli-kotasuna; Ebanjelizazioa; Misiologia; Misioen munduzabaleko igandea; Kristau-tze-historia.

Paulo Agirrebaltzategi

Misioen munduzabaleko igandea

Urtean behin, gehienetan urriko azkenau-rreko igandez, Eliza Katoliko osoan egiten den egunbeteko ihardunaldia, kristauak misio-erantzukizunaz jaberazteko, misioetarako dirua biltzeko eta misio-ekintzaren alde otoitz egiteko.

Espanieraz laburduraz eman ohi dute igande horren izena: DOMUND. Euskaraz MI-MUNDIa eta MImundi-igandea esan daiteke.

Ik. Misioak; Misio-mugimendua.

Misiolaria

Misionista ere esaten da. Misio-lanean diharduenari ematen diote titulu hori kris-tauen artean: *herri-misioak ematen dituen-ari et bereziki kristautu gabeko herrialde edo gizartetara Ebanjelioa zabaltzera aldatu denari.

Esanahi zabalagoz, edozein kristau fede-dun ezagutzen du teologiak misiolaritzat, fedea-ren lekukotza ematera eta Ebanjelioa zabaltzen saiatzera deitua eta besteren ar-tera "bidalia" dagoenez. Ik. Misioa.

Misiolaritza, norberaren fedea eta erli-jioa zabaltzeko iharduera eta beharra adie-razten duenez, ez da kristautasunarena baka-rrik. Erlijio unibertsal guztien dinamismoan dagoen elementua da. *Sangha budistak, esate baterako, muin-muinekoa du *dharma edo bu-dismoa zabaltzea. Monakoak beren lurraldee-tatik harantz joan ohi dira horretarako, misiolari gisa.

Ik. Misioak; Deiera.

Misiolari-kolegioa

Garai batean frantziskotarren artean zeuden komentu bereziak, non elkarrekin bizi bait ziren *herri-misiotan lana egiten zuten *fraideak. Ezagunenak Zarauzkoa eta Herribe-rrikoa ziren Euskal Herrian. Iparraldean ezaguna izan da Hazparneko misionisten etxea, apaiz diozesiarrena.

Ik. Misioak; Misiolaria.

Misiologia

Teologiaren alorretako bat da, Elizaren misioaren oinarri teorikoak, historia eta metodoak irakasten dituen.

Ik. Misio-teologia.

Misionista

Ik. Misiolaria.

Misiozko aurrintzea

Ik. Misio-laneko moldaera.

Mistagogoa

Lehen alditako Elizan kristau-sarbideko sakramentuei, *bataioari eta *eukaristiari, buruzko *katekesia egiten zuena. Erritoen azalpena izan ohi zen gehienbat.

Ik. Sarbidapen-erritoak; Katekumenoa.

Misterioa

Erabat funtsezko kontzeptua da erli-jio-fenomenologian. Maila ezberdinetan era-biltzen da.